



❖ CHILLIDA-LEKU Pello Ramirezen musika Zabalagan

Chillida-Lekun aparteko kontzertua entzuteko aukera dago gaur Pello Ramirezen eskutik. Biolontxelojole honek *Haize Oihalak* izeneko disko-ko 14 pieza zuzenean interpretatuko ditu. Kontzertua 20:00etan hasiko da. ||

❖ MOBILIZAZIOAK Kontzentrazioa gaur Etxerategen deituta

Etxerategen kontzentrazioa egingo du gaur *Estatus Politikoa Orain. Euskal Presoak Euskal Herrira* lemapean, 20:00etan, Plazan. Ondoren saskia zozketatuko da; erri-fak saltzen arituko dira Kixkaleko iskienean 18:00etatik aurrera. Bestalde, Etxerategen dei egin du urtarrilaren 7an Bilbon egingo den manifestaziora joateko. Autobusak Atsegindegitik aterako dira 15:00etan eta txartelak salgai daude Rioja eta Garinen. ||

Martutenera Martxa

Amnistiaren aldeko mugimenduak urtero bezala Martutenera Martxa antolatuko du biharko eta hernaniar guztiei dei egin die 10:00etan Zinkoenean azaltzeko. Hortik denak batera joango dira Martutenera presondegira. ||

❖ UDALA

Onartu da Lan Hitzarmena

Atzo egin zen Plenoan 2005etik 2007ra bitarteko Udala lan hitzarmena onartu zen. Bozketa bi bloketan egin zen. Alde batetik 2005 urteko soldata eta lan orduak onartu ziren aho batez; baina 2006-2007 urteei dagokien lan hitzarmenean eztabaida izan zen eta ez zen aho batez onartu: PSEko hiru zinegotzik kontra botatu zuten eta PPkoa abstenitu egin zen. ||

Jarri dituzte Santiago Bideko lehenengo seinaleak Elizatxon eta Portun

Kaxkoan ere seinaleak jartzeko asmoa dute, baina oraindik ez dago epe zehatzik.

EUSKO Jaurlaritzak jarri berri ditu Santiago Bidea seinalizatzeko lehenengo markak, Santa Kruzeko Humilategitik hasi eta Portun barrena trenbide ondoko biderantz. Zehazki esateko, Santa Kruz ermita ondoan, Portuko tunelean, Shangaien, Portuko erreka zubi ondoan eta Egaña baserrian jarri dituzte seinaleak.

Bi urtetik honako egitasmoa Badira ia bi urte egitasmoa aurrera eramateko Udaleko eta Jaurlaritzako arduradunek lehenengo bilerak egin zituztenetik. Bi erakundeen artean Santiago Bideko ibilbidea adostu zuten. Proiektu honen arabera ibilbidea banandu egingo da eta bata bide zaharretik jarraituko luke (Portutik Urnietara trenbide ondotik) eta besteak Santa Barbaratik Lasarte aldera.

Horretaz gain, erakunde bakoitzaren ardurak ere zehazturik daude: Jaurlaritzaren kargu geratu da zona ez urbanoa eta Udaletxearen kargu hirigunea. Hala ere Jaurlaritzak hiriguneko seinalizazio lanak egiteko laguntzak emango ditu. Udala



Bide berria Santa Barbaratik. Betiko bidea Floridatik Zinkoenea eta Udaletxera joaten da. Hor, banandu eta bide berri bat irekiko dute, Laubidieta, Alberro eta Santa Barbaratik Lasartera. Bide berria irekitzeko erabakia hartu du Jaurlaritzak betiko bidea N-1ak jaten duelako eta erromesentzat erakargarriago egiteko.

Jaurlaritzarekin harremanetan dago, eta gainerako seinaleak jartzeko epe zehatzik ez badago ere, datorren urtean izango dela aurrakusi dute.

Plaka eta seinaleak Kronikari adierazitakoaren

arabera, zona ez urbanoan egurrezko seinaleak jarriko dituzte, Santiago Bideko ikurrarekin eta bestelako datuekin (distantzia, leku berezien izena...). Zona urbanoan berriz, metalezkoak izango dira plakak. Kale Nagusian

eta plazan lurrean itsatsiriko seinale txikiak jarriko dituzte. Guztira 40 seinale inguru izango dira.

Barrualdeko bidea Hernanitik Santiagoren aztarnak omen zirenak IXgarren mendean aurkitu zituzten eta orduetik hainbat bide erabili dituzte erromesek hara joateko. Ezagunena Frantsez bidea, Orreagatik Iruñea eta Burgosen barrena joaten zen, baina badira beste bi, bata kostakoa eta San Adriangoa edo Barrualdekoa bestea. Azken hau da Hernanitik pasatzen dena, Astigarragatik etorri eta Andoainen Oriako bailara jarraitzen du, San Adriango pasotik Arabara iristeko.

Hernanitik pasatzen den Barrualdeko Bideak San Adrian barrena jarraitzen du.

Santiago bideak sekulako garrantzia izan zuen Erdi Aroan, ez bakarrik erlijioari dagokionean, merkataritzari berebiziko bultzada eman baitzion eta garai hartako erregeek sustatua izan zen. ||

Santiago bidearen aztarnak Hernanin

SANTIAGO Bideko arrasto ezagunenak Santiomendiko ermitarenak dira inguru hauetan. Baina Hernanin badaude Santiago bidearekin lotura duten arrastoak. Eusko Jaurlaritzako Dekretu batek Santiago bidea pasatzen den hainbat monumentu babesten ditu eta horien artean aurkitzen dira Hernaniko Kaxkoa, Fagollagako zubia eta baita Santa Kruzeko Humilategia ere. Leoka garbitokia eta Agustinen komentuko portikoa nabarmentzekoak dira gainera, Santiago bideko ibilbide barruan.

Dekretuak Santa Maria Magdalena ospitalea ere babesten du, baina Udalak Jaurlaritzari azaldu dionez Kale Nagusiko eraikin hau XIXgarren mendean desagertu zen. ||



Santa Kruz eta Leoka ondoan seinaleak jarri dituzte.

URGASKA, S.L.

Gas instalakuntza
Material salmenta

K21

- * Asistentzia tekniko, gas eta berogintzan.
- * Gas propano, butano eta naturala: mantenua
- * Iturgintza

Aristizabal 9 Behea
Tel.: 943 33 37 40

TALOA

OKINDEGIA
DASTALEGIA

Antziola kalea, 16- beheak
Tel. 943330972
HERNANI

ITXASPE

Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 653 74 10 97
20120 Hernani

Hernaniko emakumeen historiari buruzko liburua

Edozeinentzako opari polita...

Lete liburu dendan salgai.

AHOTSAK
EMAKUMEAK HISTORIAN
HERNANI (1936 - 1970)
U.BARRUTIBENGOA N.ELIAS
G.GONZALEZ A.RODRIGUEZ

☎ TELEFONOAK 1 Taxiak: 943 550093 1 Udaltzaingoa: 943 333288 1 DYA: 943 464622
1 Autobusak: 943 556662 1 Anbulatorioa: 943 006666 1 Jokalari anonimoak: 943 331103
1 Alkoholiko anonimoak: 943 331103 1 FARMAZIAK 1 Egunez: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022
1 Gauez: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA
GAUR Lainotzen joango da eguna aurrera dijoan bezela eta euria egingo du. Tenperaturek ez dute aldaketa handirik izango.
BIHAR Bihar eguraldi tankerakoa izango dugu. Lainotuta egun guztian zehar eta euria. Tenperaturak berdintsu. (euskalmet)



Portuko erreka zikin. (Argazkia koloretan interneten).

Portuko erreka txuri-txuri eginda zetorren atzo

ATZO eguerdian abisua jaso zuen Hernaniko Kronikak Portuko erreka txuri-txuri eginda zetorrelako. Udaletxeko Ingurugiro zerbitzuak jakinarazi du susmoa dela Urnietako enpresa batetik botatako isuri baten ondorioz etorri dela erreka zikina. Ordu beteren bueltan erreka "bere kolorea berreskuratu" zuen eta pentsatzen da bapateko isurketa izan dela, hau da, erreka golpetik bota zutela produktu kutsagarria. Udaltzaingoa ikertzen ari da isurketaren nondik norakoak. Diputazioako guarda ere jakinaren gainean dago. ||

Udal Aurrekontuetan bonobusak lekurik ez izana salatu du Elkartzenek

ELKARTZENEK prentsa ohar batean salatu du Udalak ez duela bonobusaren aldeko urratsik eman. Batetik gogorazi dute 1.700 herritarren firmak aurkeztu zituztela eta mozio bat ere bai, eragile ezberdinen babesarekin, bonobusa eta bonobus soziala jartzeko Udal Aurrekontuen %2a gordetzeko.

"Udalak borondaterik ez" Elkartzenek dio EAJ-EA-EBk osatzen duten Udal Gobernuak bonobusarentzat dirua jartzeko prest daudela publikoki esan duela, baina joandako astean onartutako aurrekontuek ez dutela honentzat "xoxarik" gordetzen. Elkartzenen iritzian hau iraina da: "sinadura guzti hauei horrelako mesprezua egitea".

Dio Udalak Diputazioa seinalatuko duela justifikazio gisa baina Donostiako kasua jarri du adibide gisa: "Donostiako

Udal Aurrekontuek diru kantitate bat gordetzen dute urtean honi aurre egiteko" azaldu dute. Horrez gain diote badakitelako Hernaniko kasua diferentia dela "Hernanitik igarotzen diren konpainiek beste herri batzuk ere igarotzen baituzte...baina ezin da formularik sortu herri bakoitzak Donostiak egiten duen erara herritarren bonobusa ordaintzeko diru partidak bideratzeko?" galdetzen dute.

Mozioari erantzunik ez Elkartzenek abendu hasieran mozioa aurkeztu zuen Udaltxean, ELA-LAB-ESK-Gazte Asanblada eta Ate Jokaren babesarekin, eskatuz Udal Aurrekontuen %2a bonobusa martxan jartzera bideratzeko. Beren hitzetan "garraio publikoaren erabilera ez du egon behar gaitasun ekonomikoak baldintzatuta". Elkartzenek dio ez dutela erantzunik jaso:

"Erantzunik ez al dugu merezi? Zer iritzi dute Udalean aurkitzen diren alderdi politikoek gure mozioaren aurrean? Zer iritzi du Gobernuko partaidea den Ezker Batuak?".

Elkartzenek dio eztabaida aurrekontuak onartu baina lehenago egin behar dela, gaia kaleratu eta herritarren informatuz. Salatu du honen ordez aurrekontuak aurkeztu eta aste batzuen buruan goizeko 09:00etan onartu zirela, jendearen parte hartzearen beldur "eztabaida antzuen ondoren". Horrekin batera dio ezin dela esan aurrekontuak parte hartzaileak direnik "ez dugu aurrekontuen inguruan ezer entzun aprobatu ondoren" azaldu du.

Azkenik azpimarratu du aurrekontu parte hartzaileen eta herritarren alde egiten ez duten Udal Gobernu guztiek izango dutela Elkartzen aurrean. ||

❖ MOLOTOFF (99.2 FM)

Mariskada zozketatuko dute bihar

Molotoff Irratiak mariskada ozketatuko du bihar Plazan 20:30etan. Txartelak 50 xentimo balio ditu eta 2006ko egitaraua dakar. ||

❖ GABONAK JOLASEAN

Marsel magoaren emanaldia Sandiusterrin

Gaur arratsaldeko 17:00etan Sandiusterrin Marsel magoaren emanaldia izango da Hezkuntza Sailak antolatuta. ||

❖ ITURRITXO AUZO ELKARTEA

Eskulanak eta jokoak

Latsunbe 2 zenbakiko egoitzan eskulan eta jokoak izango dira 10:30etatik 12:30etara, Iturritxo auzo elkarteak antolatuta. ||

❖ XALAPARTA

Batzar orokorra urtarrilaren 22an

Urtarrilaren 22an Batzarra dute Xalapartan. Bajak, titulartasun aldaketak eta bazkide berrien izen ematea hilak 15ean amaitzen da. ||

❖ KANTUZ ABESBATZA

Kantuz eta Musika Banda Milagrosan gaur

Gaur Kantuz Abesbatzak eta Udal Musika Bandak Gabonetako kontzertua eskainiko dute arratsaldeko 20:00etan hasita Milagrosan. Zuzendari lanetan ariko dira Amaia Sasiain eta Cipri Otxandorena. ||

❖ ERRONDA

Urte Zaharretako erronda bihar

Ohitura Zaharrak abesbatzak antolatuta Urte Zaharreko erronda egingo da bihar Hernaniko kaleetan barrena. Parte hartu nahi duen guztia gonbidatua dago eta zita 17:15etan izango da Plazan. ||

❖ SASKIBALDIA

Urte Zaharra III. Torneo gaur

Gaur amaituko da Urte Zaharra III. Torneo, Kiroldegian, La Salleren kontra jokatu diren partiduekin: alebinek 16:30etan, infantilek 18:00etan eta junior taldeak 19:45etan. ||

† ANTONIO VALDIVIA GOMEZ

Asteazkenean hil zen.

Miguel gure lankidearen aitari



HERNANIKO UDALTZAINGOA

Hernanin, 2005eko abenduaren 30ean

2006ko Egutegia
URTARRILA
Prezioa: 3,00 €

liberena ● liberr
Salgai ohiko tokietan

Kronika, Dobera, Sebas, Irurategolena, Leokadisti, Plazo Berri, Zinko-enea, Kande, Dorronsora, Bikain, eta Antziola okindegian.

ILBELTZA

dobEra
HERNANIKO UDALTZAINGOA
kronika

Adauxu
Jantxidenda

Urte Zahar eguneko festetarako soineko bereziak.

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON

Lizeaga, 2 HERNANI
943 57 60 16

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Etxea salgai Ereñotzun. 3 gela, sala, sukalde eta komuna. Orain 5 urte berttua. Deitu: 650 04 03 16

Etxe lanak egiteko, esperientzia duen emakumea behar da. Deitu: 609 82 34 72

Arotz profesionalak lan txikiak egingo lituzke. Interesatuak deitu: 656 78 64 15

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42).

Etxea salgai Gudarien plazan. Deitu 13:30etatik 15:30etara. 679 10 75 06.